


Nafarkaria

Nafarroako gehigarria / Ostirala, 1993ko ekainak 4 / III. urtea / 78. zenbakia



‘Gu gaurko euskaldunon gure aitasoen illezkorren

Gamazada, gaur ehun urte

historikoaz gain, gaur egungo alderdi politikoak ere orduko izpiri-

Oroipenean, bildu gera emen Gure legea gorde nai Dugula erakusteko’. Iruñeko Foruen Monumentuan euskaraz eta erdaraz dago zizeldurik duela ehun urte Euskal Herria —bereziki Nafarroa— astindu zuen Gamazadaren oroimena. Foruen erregimen fiskala aldatzeko German Gamazo y Calvo Espainiako Hazienda ministroaren asmoak sekulako erantzuna eragin zuen Nafarroan, eta gaur ehun urte, 1893an, 20.000 pertsona inguru manifestatu ziren Iruñean. Gamazadaren esanahi

tua gogora ekartzen saiatu dira egunotan, eta Aizpunek ‘Gamazada’ berri batekin mehatxatzen duen bitartean, Euskaria eta Bai Independentziari erakundeek ekitaldia antolatu dute gaurko Foru Monumentuan bertan. Historialariek bitartean, Nafarroak ordutik aurrera jaso zuen zatiketa politikoan paratzen dute arreta. Batzuen-dako, bertan aritu ziren elkaturik azkenengo aldiz nabarristak eta euskaltzaleak; besteendako, hor agertu ziren banandurik lehendabizikoz.



Kongresurako: José Luis Etxegaray, José Angel Aguirrebengoa, Celes Gómez de Segura, Miguel Díaz de Zerio, Erkuden Goikoetxea



Senaturako: José Antonio Urbiola, Xabier de la Peña, Pedro Arbizu



NAFARROAREKIN.

EMAN BOTOA.



Gure aukerak

IKASTAROAK

Piraguismo ikastaroa antolatu dute Sakanako Kirol Batzordea eta Bordatxoko Arraun Taldeek. Ikastaroa ekainaren 5, 12 eta 19an egingen da Izurdiagan, eta horretan parte hartzeko 1.000 pezeta ordaindu beharko dituzte 14 urte baino gutxiago dutenek, eta 2.000 zaharragoak direnek.

Antzerki teknikak ikasteko aukera emanen die bihar Zangozako udalak teknika horiek ikasi nahi dituzten guztiei. Bertako Kultura zerbitzuak antolatu du ikastaroa, eta bihar, hilak 5, arratsaldeko lauretatik zortzietara egingen da ikastaroa herriko Kultur Aretoan.

MUSIKA

Folkaldia izeneko jaialdia izango da gaur, ekainak 4, Iruñeko Eskolapioetako aretoan, Arturo Kanpion euskaltegiak antolatuta. Bertan Iruñeko Izugarri eta Leitzako Txaragorri taldeek hartuko dute parte.

MCD eta Sasoi Ilunak taldeak kontzertuan ariko dira gaur gaueko haimaiketarik aurrera Orbaiztako plazan. Bertako udalderetxeak antolatu du kontzertua, eta intsumisioaren aldeko ekitaldia izanen da. Gaur goizean Malli Txapar Apezarena Orbaiztako alkatea soldaduska egin behar zuten herritarren zerrendak ez osatzeagatik epaitua izanen da Iruñean.

Platero y Tu Jesse James Band eta Baldin Bada taldeak bihar Bakaikuko pilotalekuan ariko dira. Rock kontzertua gaueko 11etan hasiko da.

BESTELAKOAK


Paella handia egin eta jan egingen dute bihar, hilak 5, Iruñeko Txantrea auzoko Irubide parkean bertako intsumisioek eta haien senide eta lagunek. Txantreako Gazte Asanbladak eta Intsumisioaren Aldeko Batzordeak antolatu dute herri bazkaria.

Bizikleta martxa antolatu du gaur gaurerako La Tortuga Perezosa elkarteak. Hilbetero bezala, Iruñeko Gaztelu plazatik abiatuko dira txirrindulariak gaur gaueko zortzi t'erdietan, eta hiria goitik behera ibili eta gero, afaria egingen dute.

Jende askorendako erabat ezezaguna izango da asteburu honetarako proposatzen dizuegun ibilbidea. Izan ere, zonalde hau Nafarroako ahaztuenetakoa da, eta bertan aurki daitezkeen herri frankok aspaldian ikusi zuten alde egiten azken bizilagunak. Horrela, ibilbide honek bisitatzen dituen lau herrietatik soilik batek, Adoainek, badu oraindik biztanlerik. Gindanok, Zerrenkanogotik eta Zerrenkanobeitik, ez. Jendearen gogotik kanpo gelditzen dira, eta askorendako paraje hauek ezpel lurra besterik ez dira.

Ibilbidea Adoaindik bertatik ateratzen da, ibaiaren eskuineko ertzetik, eta zubia pasata, hegoalderuntz ateratzen den bideari jarraitu behar diogu. Borda bat pasa ondoren, Sarraiteko amildegitik pasa, eta bideari eusten diogu, pinudi tartean, lepo bateraino heldu arte. Bertatik ikus daitezke dagoeneko Zerrenkanogotiko etxe hutsak.

Haruntzako bidea hartu behar dugu orain, haritz eta pinudien artean, eta herrira behin heldu, bertan dagoen pakeaz gozatzea da onena, herri hutsa aurkitzeak ematen duen ma-



lenkonía gainditu ondoren. Hiru etxeen hondakinak dira bertan, eta handienaren ondotik bide bat ateratzen da, iparralderuntz.

Hortik hartu beharko dugu izen berbera daraman amildegiko bidea, Zerrenkanobeitiraino. Parajea are bakartiagoa da hemen, eraikin bakarren hondakinak besterik ezin baita topatu. Bideari jarraitu behar diogu, errebolta franko duenari, hain zuzen ere. Zonalde

osoan ugari dira basurdeak, eta Iruñerriko ehiztariak ongi asko ezagutzen dute paraje hauek. Hain zuzen ere, hemen aurkitzen ditu baldintza apartak, jende gutxi, baso zabalak, eta eguraldia ez oso gogorra.

Hortik aurrera bidea Imirizaldu eta Adoain bitarteko errepideruntz doa, eta behin hori hartuta, Gindanoko amildegitik barna doanari jarraitu behar zaio, atera garen lekutik heldu arte.

ASTEKO PERTSONAIAK



Miguel Indurain
Txirrindularia

Miguel Indurain aurtengo Giroko bere aurkariak erabat kokildu zituen hereneguneko erlojupekoan, eta aurtien iaz baino motelago ari zela ziotenen ahoa estali zuen. 35 minutu eta 16 segundu besterik ez zituen behar izan Atarrabiako txirrindulariak etapako 28 kilometroak burutzeko. Minutu bat eta 58 segundu atera zizkion Gianni Bugnori, minutu bat eta 42 segundu Chiccoliri, eta minutu bat eta 14 segundu Claudio Chiappucciri. Aurkari horiek erlojupekoaren amaieran egindako adierazpenak adierazgarriak dira oso. Claudio Chiappucci: «Nork esaten zuen gaizki zegoela? Sasoi hobean badago etapa honetan akatzen gaitu». Gianni Bugno: «Niretzat Giroa amaitu da. Ez dakit zer gertatu den, Barnetik hautsita nago eta ez dut ezer ulertzen».



Malli Txapar
Orbaiztako alkatea

Gaur, ostirala, epaituko dute Iruñean Malli Txapar Orbaiztako alkatea, soldaduskarendako bete beharreko tramiteak osatzeari uko egiteagatik. Udalbatzaren aginduari jarraiki, Malli Txaparrek ez zituen, Nafarroako beste hainbat herritan —Bakaiku, Etxarri-Aranatz eta Ziordian, kasu— gertatu den bezala, herriko gazteen zerrendak osatu, eta gogoratu behar Manuel Campos Etxarri-Aranatzko alkateak dagoeneko epaiketa jasan behar izan zuela horregatik. Bertan sei urteko inhabilitazioara zigortu zuen epaileak. Subiza KEM-MOCeko abokatuak azaldu zuenez, «Francoren garaiko administrazioan errota dago legea», eta Txaparrek batera erabakia hartu zuten beste sei zinegotziak ere epaitu beharko lituzkeela adierazi zuen.



Roman Kosecki
Futbolari

Jokalari on bat izan, eta kentzen digute!», diote egunotan gorritxoan zaletu frankok, ez baita duda handirik poloniarren Madrileko bidea hartuko duela hurrengo denboraldirako. Iruñera heldu zenetik talde handiren batean jokatzeko bere nahia azaldu du aurrelariak, eta Jesus Gil y Gil Atletico de Madrid taldeak ere gustu handiz ikusiko luke Kosecki bere lerroetan. Gauza guztiak ordezkariaren eskuetan daude, eta egun batetik bestera has litezke horretarako negoziazioak. Ezkurak, baina, zerbait trukean nahiko du, eta horretan dago arazoa, bi aldeak negoziatzaile gogorrak baitira. Koseckik, baina, ez dirudi talde onena aukeratu duenik, arazoak eguneroko ogia baitira Madrileko taldearen barruan. Faltan botako du Osasunako lasaitasuna.

AHAZTU GABE!

IRUÑEKO Liburu Azoka bihar arte zabalik izanen da hiriburu-ruko Gaztelu plazan. Urtero bezala, haien salmenta postuak kalera atera dituzte liburu saltzaileek ekainaren lehen asteburuan, eta atzodanik zabalik da Liburu Azoka. Postuak goizeko hamarretatik gaueko hamarretara zabalik daude, eta ohi denez, % 10eko beharapena gozatuko dute haien liburuak bertan erosten dituztenek. Saltzaileek azoka eguraldi onaren bila atzeratu bazuten ere, urtero euria egiten du azokak irauten duen bitartean. Aurtien ordea ez dirudi horrelakorik gertatuko denik, atzo behintzat oskarbi ageri baitzen zerua. Eguraldi onaren laguntzaz salmentak areagotzea espero dute liburu dendariek.

Aipatu beharra dago azokaren atarian hainbat liburu karrikaratu dutela zenbait argitaletzek. Donostiako Alberdaniak eta Tafallako Txalapartak asteartean plaratu zituzten haien argitalpen berriak, eta Iruñeko Pamielak asteazkeneko utzi zuen eginkizun hori, eta Azokak irauten duen bitartean egunero, hau da, atzo, gaur eta bihar, liburu ezberdin bat plazaratzeko asmoa dauka.

ADI!

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Ostegunero, arratsaldeko 4etan, **30 seme-alaba Nafarroako**. Elkarrizketak.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazken 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazken 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

BESTAJIRA izeneko saioari

ekingo dio Euskalerrira Irratiak heldu den asteazkenetik, hilak 8, aurrera. Zortzi egunez, goizeko 11etatik 12ak bitarte, oporretan zer egin, norra joan, aukera ezberdinak, liburuak, musika, festak eta abarri errepasoa emango diote bertan, eta ibilbideren bat proposatuko dute egunero. Horretaz gain, pertsonai famatuen oporren berri ere emango dute.

HERRIZ BERRI

Goizueta

Metropoli Forala



LEKUNBERRIn ospatuko dute bihar, larunbata, Nafarroako Euskal Katekesia Eguna, OHO-ko haur, guraso eta katekistentzat antolatua. Goizeko hamaietatik hasita, eliza bakoitzeko taldeek zerbait prestatuko dute eta musika eta abarrez josita izango da meza. Bertan, Fernando Sebastian Artzapezpikuaren presentzia espero dute antolatzaileek. Bazkaria bakoitzak eraman beharko du eta horren ondotik, Lekunberriko pilotalekuan bertsolariak izango dira, Teiletxea anai-arreba, hain zuzen ere.

ARRIBEko Txurritxoberri trikuharriarendako babes bereziko arauak onartu berri ditu Nafarroako Hirigintza eta Ingurugiro Batzordeak (CUMAN), eta bere inguruan hamar metrotako babesa-eremua ezarri du legez. Horrekin batera, Araizko ibarreko arautegi subsidiariak onartu zituen CUMANek, eta bertan ez da aurrikusten eremu industrialik. Hazkunde handiena Azkaraten eman liteke, San Esteban karrika inguruan 32 etxebizitza berrien eraikina aurrikusten baita.



IRUÑEko Azpilagaña ikastetxe publikoko gurasok salaketa jarri dute epaitegian A hezkuntza eredu aurrera eramateko izan dituzten oztopoak direla eta. Ikastetxe zenbait gurasok aipatu lerroan matrikulatu zituzten haurrak, baina Hezkuntza departamentuak, abisatu gabe, lerroa deuseztatu zuen, eta irakasleak beste ikastetxera bidali zituen. Arazoa Parlamentuan bertan eztabaidatu zen, eta Markotegiri leporatu zitzaion orduan legez jokatu ez izana. Gurasok azaldu zuten, arrazoi politikoak daude erabakiaren atzetik.

BERRIOZARko bi gazteren kontra zegoen akusazioa bertan behera utzi zuen Iruñeko instrukziozko epaitegiak, berari eusteko frogan nahikorik ez zelakoan. Gertaerak 1992ko abenduko 29an gertatu ziren, Eguzki Enparantzaren inguruan zegoen ez ohizko udalbatzan. Bizilagunak bere protestak azaltzera agertu ziren udalbatzara, eta udaltzaiek batzargela babesten zuten bitartean, bultzaka hasi ziren bizilagunak, eta udaltzaiek bat erori eta zaurituta gertatu zen.



Sokatira talderik onenak ikusteko aukera izanen da.

Sokatira finalak asteburuan

PATXI ULAIAR / IRUÑEA

Nafarroako Sokatira Txapelketako jardunaldiak hasiko dira asteburu honetan, larunbatean hain zuzen ere, arratsaldeko 6etatik aurrera, eta bigarren mailakoetan. Horrela, 600 kilotan, gizonezkoetan, Txantrea, Berriozar, Alli-Arruitz-Aldatz, Etxauribar, eta Goizuetako Artzuri taldeek hartuko dute parte, eta emakumezkoetan, 480 kilotan, Bera, Lesaka, Basaburua, Baztan, Berriozar, Etxauribar eta Txantrea lehiatuko dira. Lehendabiziko mailakoek atsedena hartuko dute oraingoz.

Beste mailetan pasa den asteotan jokatuak ziren finalak. Lekunberrin, eta bigarren mailako gizonezkoetan, 640 kilotan, Alli-Arruitz-Aldatz nagusitu zen, ustekabean nagusitu ere. Izan ere, lehendabiziko hiru jardunaldien ondotik, Berriozar gelditu zen lehena, Txantrea bigarrena, Alli-Arruitz-Aldatz hirugarrena, eta ondoren Goizuetako Artzuri. Erdifinaletan Berriozar eta Artzuri lehiatu ziren, eta lehia biziaren ondotik kuenkoak nagusitu ziren. Txantrea faborito nagusiak, bitartean, Alli-Arruitz-Aldatz aurretik makurtu behar izan zuen. Finalan, esan bezala, larraundarrak nagusitu ziren, eta hirugarren toki Txantreak eskuratu zuen.

Pasa den igandean, maiatzak 23, Elizondon jokatu ziren lehen mailako finalak, 640 kilotan gizonezkoetan, eta 520 kilotan emakumezkoetan. Gizonezkoetan Amaur izan zen lehena, erdifinaletan Berriozar aisa menderatu ondoren, baina finalean asko sufritu behar izan zuen Sunbillaren aurka. Lesaka hirugarrena gelditu zen, eta ondoren

Berriozar, Basaburua eta Araitx-Betelu gelditu ziren.

Emakumezkoetan ez zen ustekaberik izan, eta Berak aisa

menderatu zituen kontrakoak. Berriozar, Etxauribar eta Basaburuko taldeen aurretik gelditu

zen.

Lizarra

Maeztu Museoaren gela berria inauguratu zuten asteazkenean

P.U. / LIZARRA

XIX. mendeko bederatzi koadroekin zabaldu zen pasa den asteazkenean Maeztu Museoa, Juan Cruz Alli Nafarroako lehendakari eta Javier Markotegi Kultura kontseilariaren presentziarekin, besteak beste. Kultur munduko pertsonai frankorekin egindako inaugurazioarekin 1991ko udaberrian hasitako bidea amaitzen zen nolabait. Orduan hasi ziren berritze lanak Nafarroako Erregearen eraikinean, eta museoa zabaldu zen. Hori izan zen lehen urratsa. Orduan Maeztuaren lanak heldu ziren Lizarrara, eta bisitaldiak ugariak izan badira ere, beti faltan izan dute bertan erakusketarako gela iraunkorra.

Horretarako gela prestatzeko lanak iaz hasi ziren, 13,6 milioitako aurrekontuarekin, Nafarroako Gobernuaren kontura. Asteazkenean zabalduko erakusketak 1904 eta 1909ean Madrilako Monumentuen Batzordeak Nafarroari emandako zenbait lanez osatuta dago. Koadro hauek Pradoko Museoan zeuden, eta Nafarroako Museoan egon ondoren, Lizarran daude eskegita egun.

Bederatzi koadroak XIX.

mendeko azken garaikoak eta XX. mendeko lehengokoak dira, eta egileak Jose Diez Penades, Bernardo Ferrandiz y Badenes, Luis Franco Salinas eta Cecilio Pla y Gallardo pintore valentziarrak; German Hernandez Amores murtziarra; Hermenegildo Estevan Fernando aragoarra; eta Miguel Jadraque y Sabchez Ocaña, Serafin Martinez del Rincon y Trives, eta Maximo Peña gazteluarrak dira. Denak dira paisai eta giroko pintoreak, baina erretratoak, erlijio gaiak edo historia ere lantzen dute. Denek oleoa erabiltzen dute, Maximo Penak izan ezik, honek pastela baitu nahiago.

Aurkezpenean, Alli lehendakariak Maeztu Museoari egokitu zion Lizarrako erakunde kultural nagusiena izateko ohorea, eta gela berrian zabaltzen zen erakusketaren garrantziaz mintzatu zen. «Hemen dauden koadroen azpian, izugarriko garrantzia duten bi erakunde daude, bata bizirik —Pradoko Museoa—, bestea hilik —Monumentuen Museoa». Halaber, Madrilako Museoak emandako erreztasunak eskertu zituen.

Jose Luis Castejon alkateak, bitartean, herriak zuen erantzunkizuna azpimarratu zuen.

Batzutan, burmuinak erabat saturaturik ditudanean, periodikuan ikusizun orrialdea bilatzen dut eta kontzertuen zerrenda irakurtzen dut goitik behera. Talde ezagunak direnean, kontu haundiz aukeratzen dut bat, eta bestela izen erakargarriena duena ikustera joaten naiz. Eskenatokitik hurbil samar jartzen saiatzen naiz eta deustan ez pentsatzen ahalegintzen naiz. Lehenengo akordeekin mugitzen hasten naiz eta sentitzen dut bateriak malenkonia pilotzen den burmuinaren zatia astintzen didala. Iraganak orduan ez nau torturatzen, bateriak ez dio kejarik ateratzen uzten eta beste kontzertu batzuen bateriak majikoen soinua besterik ez da aditzen nire buruaren zati batean, zoriona besterik existitu ez bailitzan.

Bajuak tristeziaren alde zantzen du erritmikoki eta orduan difuminatu egiten zait errepide alu baten bihurtzean hildako adiskideren aurpegia. Badakit kontzertua bukatzean berriro agertuko dela eta gauean ametsetan azalduko zaidala, baina bizirik, eta ez odol putzu baten erdian. Adoleszente bat nintzeanean bajista edo zestapuntista izan nahi nuela gogoratzen dut holakoetan eta pentsatzen dut beharbada jotzen ari diren kanta joandako laguna istripua izan zuen momentuan kotxearen radiokasetean zerman berbera izan daitekeela.

Kitararekin, aldiz, kontrako zerbait gertatu ohi zait. Gorrotoa, amorrua, biziagoak sentitzen ditut, eta haiekin batera frustrazioa, txikitu nahi nituzkeenak urrutu baitaude. Horregatik, nire oinek lokalaren zolua kolpatzen dute akordeak segituz. Nire ingurura begiratzen dut eta gehienak ni bezalaxe ari dira intensitate desberdinez. Gauean kiskalitako etxeak, goizaldeetan bahitutako gizonak edo bonben artean miss lehiaketa bat irabazi nahian areto triste batean paseatzen diren neska gazteak etorri dakizkit burura holakoetan. Lagunek esaten didate amets gehiegi egiten dudala, eta beharbada arrazoiak dute, baina badaezpada nik gogor zapaltzen dut lurra kitarra isiltzen den arte.

Ahotsek, azkenik, ondorio desberdinak izaten dituzte niregan, eta maiz aurreko sentsazio guztiak nahasten dira. Hitzek toki askotara eramaten naute, eta ulertzen ez dudanean abeslariaren ahoari begiratzen diot. Behin ahots ederreko emakume bat aritu zen kantari eta diskoetako langileek aterarazi ninduten kontzertua bukatu eta bost ordu beranduago. Eskenatokian ez zegoen inor ez nik begira jarraitzen nuen ahozabalik. Orain, psikiatrikokoek ez gaituzte kontzertuetara eramaten, baina nik horman jarrita daukat emakume haren posterra.



FELIPE RIUS

Gamazada zela kausa Iruñean egin zen manifestazio erraldoiaren ehun urte beteko dira gaur, eta hori dela eta ekitaldia antolatu dute Euskaria eta Bai Independentziari taldeek. Oso ezaguna ez bada ere, foruen defentsan baturik agertu ziren azken aldiz nafarrak orduan, hortik aurrera gauzatuko baitzen nabarristen eta nazionalisten arteko bereizketa.

Nafarrak azken aldiz baturik

ALBERTO BARANDIARAN / IRUÑEA

Nafarroak bere historian zehar izan duen zabalerik garrantzitsuenetakoari buruz iritziak ematea ez ohi da lan erreza. Are zailagoa aztertu eta historiak berak eman dion kutsu eta eraskin guztiak erantzutea, bere errealitateaz azaltzea, alegia. Nabarrismoaren sorrera kokatzen duten gertakizunetaz aritzen baldin bagara, asmoa ez da lan makala, eta interpretazioak era guztietakoak izaten dira. Egunotan hori baieztatzen auzkeria izan da politika munduan.

Jesus Aizpunek «beste gamazada baten» mehatxua egin zuen bitartean, Herri Batasuna taldeak hauteskunde hauetarako bere propagandaren sartu du gaur ostiralean Iruñeko Foruen Monumentuan Euskaria eta Bai Independentziari taldeek antolatu duten ekitaldirako deia. Izan ere, foruez ari gara. Gamazadak duela ehun urte sortu zuen mugimendua Nafarroako foruen aldeko azken defentsa sutua izan zen, eta alde guztietatik gogoratzen da, balorazio eta irizpide erabat ezberdinekin, ordea.

«Historian badira besteak baino beroagoak diren uneak» dio Iosu Txueka Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak, «eta Gamazada horietako bat izan zen. Euskaldunen ikuspuntutik foruen aurkako erasoaren aurrean nafarrek bat egin zuteneko sinboloa da, eta azpian foruzaltesunaren aldeko mugimendua dago. Kontua da honi buruz irakurketa desberdinak suma daitezkeela, baina garrantzitsuenak da Madrilko erasoari aurre egiten zaiola».

Mari Mar Larraza Nafarroako Unibertsitateko irakaslearen arabera, mugimenduen herri baten ohorezko unetzat hartzeko ospea merezia dauka, «partikularitasunaren erreindikazio izugarri eta bat-bateko delako», eta garai hartan horrelako erantzunak zuen garrantzia azpimarratu du. «Jendearen erantzuna ez zen alderdik sortua, foruen kontrako erasoak baizik. Askok ez zekien zehatz-mehatz zer ziren foruak, baina identifikazio bat bazegoen, nahiz eta bakoitzak bere erara ulertu».

Izan ere, foruei buruz azalpen ugari bezain kontrajarrak ziren garai hartan, gaur egun bezala. Angel Garcia Sanz Nafarroako Unibertsitate Publikoko historia irakaslea, ordea, ez dator bat bakarrik foruei protagonismoa



Kastejoneko nafar diputatuak jazo zuten erabileraren estandarteak.

Gamazadak duela ehun urte sortu zuen mugimendua Nafarroako foruen aldeko azken defentsa sutua izan zen.

Ordutik aurrera gauzatu zen euskaltzaleen eta nabarristen arteko bereizketa, gaur arte areagotu baino egin ez dena.

ematean. «Mugimendua bat-batekoa izan zen, bai, baina garai horrek bazituen ezaugarri berezi batzuk, eta azalpen sinplistik ez dute balio. Nafarroako erasoak pairatu zuen, eta Madrilaren aurrean erantzun zuen, bai, baina beste garaietan antzeko erasoak izan ziren, eta erantzunik ez zen izan. Kontuan hartu behar da Nafarroa oso egoera txarrean zegoela garai hartan, txiropa eta etorkizun latzarrekin, eta, beraz, ezin da egoera sinplifikatu».

Denak bat datoz, ordea, Gamazadaren puntu batean garrantzia ematean: hortik aurrera gauzatu zen euskaltzaleen eta nabarristen

arteko bereizketa, gaur arte areagotu baino egin ez dena. Bereizketa hau nabarmena egin zen foruen aldeko hurrengo mugimenduan, 1918an, orduan nazionalisten aurkakoa izan baitzen erantzuna.

Hemen aipatu beharra dago Sabino Aranak izan zuen partaidetza. Eugenio Ibarzabalak 'Manuel de Irujo' liburuan honek bere aitaren gaitasunak jasotako testigantza esanguratsua jasotzen da. Manuel de Irujo azaldu duenez, Gamazada sortu zuen euskal nazionalismoaren sortzailearen aldekako sakona, intelektual hutsa zena lider bilakatu baitzuen. Izan ere, Sabinok, Gamazada izan arte, ez zuen plazaratu bere idazkietan lau lurraldeetako batasunaren beharra, eta 'Bizkaitarra' bere argitalpenean agertu zen, lehendabiziko aldiz, '¡Viva Euskeria independiente!' oihua.


«Gamazada izan zen euskaltzaleak eta nabarristak elkarturik aritu ziren azken unea» berretsi du Mari Mar Larrazak. «Ondutik aurrera karlismoa, liberalismoa eta foruen defentsa erretorika hutsa bihurtzen da, eta nazionalistek soilik ematen diote bereizitasunaren zentzua». Garcia Sanzen ustetan, baina, Gamazada ez da bi aldeak baturik agertzen diren azkenengo aldia, «banandurik agertzen hasi ziren lehendabizikoa baizik. Gamazada nabarrismoaren sorrera da. Ordutik aurrera batzuk foruen aldeko defendatzaile gisa azaltzen dira, eta euskal kutsua edo erreindikazio sozialaren kutsua duen guztia ez da forua. Gamazadan ere nazionalismoa sortu zen, eta orduko burgesia nafarrak batzeko dena bazuen ere, Gipuzkoan eta Bizkaian gertatu zen bezala, ez zuten egin».

«Izan ere, nabarristek ez dute sekulan beren planteamenduekin zuzen jokatu» dio Txuekak. «Askotan izan dira foru-hausteak, baina eskuindarrak boterean izan zirelako ez dute inondik inora aurrera egin. Nazionalismoaren kontrako gisa ez bada, nabarrismoa ez zen gauzatuko».

Gamazada gogoratuko dute berriro, bere mendeurrenean, Iruñean, urteetan ahozkoa egon bada ere. «Hemen historiari heltzen zaio bakoitzak nahi duenerako» dio Garcia Sanzek, xexu, «baina inork ez dauka benetako historia ezagutzeko interesea».



Foruen Monumentua Gamazada gogoratzen erabiltzen duen erdaraz euskaldunen batasuna goraipatu zuen bertan. JOXE LACALLE



«... eta Gamazok kargua utzi zuen»

A.B. / IRUÑEA

Gamazadak iraun zuen egunei buruz eztabaida ere badago historialarien artean. Batzuen ustetan 1893ko maiatzetik 1894eko otsailera bitarte izan ziren gertaerak, baina beste batzuek —Angel Garcia Sanz, kasu—, 1894eko akabera arte izan zela diote gertakaren kronologia. Nolanahi ere, hasiera garbi dago. 1993ko maiatzaren 11n, 'Gaceta de Madrid-ek' German Gamazo Calvo Espainiako orduko Hazienda ministroak ondorengo urteetarako aurrekontuak argitaratu zituen, eta bertako 17. artikuluan, Nafarroari Espainian ohizkoak ziren zergak eta errentak ezartzea proposatzen zuen. Proposamena berehala hartu zen foruen kontrako erasotzat, eta erantzuna ziztu bizian zabaldu zen lurralde osoan.

Maiatzaren 16an Diputazioak bere protesta azaldu zuen, eta hiru egun beranduago Iruñeko Udalak berretsi egin zuen protesta hori. Hilaren 28an merinaldeetako hiriburuetan izan ziren manifestazioak, eta Iruñeko protesta baino hiru egun lehenago, Jose Lopez Zabalegi Aiegiko sarjen-

tuak armak hartu eta partida bat osatu zuen beste bi soldadu eta lau zibilekin. Arraitzara jo zuten lehendabiziko laguntza bila, inguruko mendietan ibili zen ondoren, eta Madrilera karlistada berri baten susmoa hartu zioten berrehala. Bai Diputazioak, bai udalak baina, azkar asko gaitzetsi zuten saioa eta bere partaideak atxilotu zituzten edo Frantziara

alde egin behar izan zuten.

Gertaera aztertu duen Angel Garcia Sanzen arabera, ez dago oso garbi partida karlista izan zitekeenik. «Garai hartan denetarik esan zuten, karlista zela, errepublikarra, baita autonomista edo independentista ere, baina ez da oso garbi geratu zein zegoen atzetik. Nolanahi ere, 1994ean zehar karlistada berri baten arris-



Jose Lopez Zabalegi.

Gamazadatik ikasi

dun' eta 'español' izatea. Nazionalismoak sortuko zuen kontraesan hori. Duela ehun urte 'euskalduntasuna' eta 'tradizio espainiola' sinonimoak ziren, Navarro Villoslada-ren 'Amaya o los vascos en el siglo VIII' liburuaz zuzenean (orain, ordea, Iruñeko Parte Zaharrean, behintzat, 'euskalduna' 'desmadrearen' sinonimoa dela esan genezake). Sabino Aranak, bi jaun —Espainia eta Euskal Herria— zerbitzatzea ezinezkoa zelakoan, aukeratu egin behar zela esan zuenean, Nafarroa Garaiko eliteek baztertu egin zuten euskalduntasuna. Eliteei populuek xehetarik gehiena jarraiki zitzaizkien. Horregatik da inportantea Gamazada: 1893an ia azkeneko joan zirelako eskutik lotuta euskalduntasuna eta espainolotasuna.

Ez da alferrik izan gogora ekartzea 'nazioa' (gaur konprentzen dugun moduan) kontzeptu moderno delako. XVIII. mendeko arte 'Espainia' Iberiako Penintsularen sinonimoa izan zen (hots, ideia geografikoa, Portugal barne zekana). Eta, iragan mendeko arte, 'Euskal Herria' kontzeptu linguistikoa hutsa izan zen, erdaraz 'tierra bascongada' itzultzen zena. (Horregatik izkiritzen zuten 'euskal herria', minuskulaz, Axularrek eta Frai Bartolome de Santa Teresak, besteak beste, artean ez zelako nazio baten izena). Zer kontra-

san zegoen lurraren eta hizkuntzaren artean? Bakarra ere ez. Antso Haundiak, baten batek 'euskaldunen Salomon' deitu zuenak, 'Espainiako Enperadorea' titulua hartu zuen, ez 'Euskal Herriko Errege' titulua. Iparagirre, Euskal Herriko himnoa egin zuena, hunkitu egiten zen Hendaia baina Espainian sartzen: '...ara España, lur oberikan/ezta Europa guzian'. Hizkuntzak XIX. mendean bihurtu ziren muga, ibaien eta mendien antzera.

1936ko estatutua arte (hots, hilabete batzuk baizik iraun ez zuen eta egitea Bizkaia baizik bildu ez zuen estatutua arte) nor bere kasa ibili ziren Euskal Herriko herrialdeak, inolako administrazio loturarik gabe. Nere ustez, euskal nazionalismoa bigarrena ez zen urrats bat egiten saiatu da: inork ukatzen ez zuen batasun kulturetik inoiz gauzatu ez zen batasun politikora, hain zuzen ere. Amildegirako jauria izan zen. Horren denaren ondorioak ezagunak dauzkagu: dena lortu nahi izateagatik, geneukana galdu egin genuen.

Gamazadaren oroigarri eraili zen Foruentzako Monumentuan Nafarroa Garaiko bi hizkuntzetan datza. Orain, gaurko foralisteri ez zaie bururatzen ere hauteskundeetan euskara erabiltzea eta 'arrotz' deritzete beste batzuek. Diputazioak antolatu zuen duela

kua nabaria izan zen, karlistak asko mugitu baitziren, eta aukera ere izan zuten beste altxamendu bat sortzeko».

Eta Gamazadaren egunik famatuena heldu zen. Ekainaren 4ean, Diputazioak deituta, manifestazio erraldoia egin zen Iruñean, Nafarroako zoko guztietatik etorritako jendearekin. Hogei mila lagun inguruk hartu zuen parte bertan, eta kontuan hartzen badugu orduko zailtasunak bidaizatzeko —jende franko aurreko egunean heldu zen hiriburura—, eta jende xumeak ziztuen baliabide eskasak, arrakasta osoa izan zuen deialdiak.

Ez ziren hor amaitu protestaldiak. Manifestazioaren ondotik 120.000 sinadura bildu ziren proiektuaren kontra, eta Espainiako Gobernuak beste proiektu bat aurkeztu zion Diputazioari. Hau ere ez zen nafarren gustukoa izan, eta 1994ko urtarrilean Madrilera deitu zituen Gamazok nafar diputatuak. Hauxe ez zuten amore eman, eta itzultzean, jendetza izugarriak hartu zituen Kastejonean. Gobernuak etsi egin zuen, eta Gamazok dimisioa aurkeztu zuen martxoan.

ehun urteko manifestaldia. Gaurko diputatuak, baina, Gamazo berrien jarraitzaile bihurtu dira. Hogei mila nafarrek hartu zuten parte manifestaldi hartan. Gaurko ekitaldira berrehun lagun bil balitez, zoriontsuak izan gintezke...

Duela ehun urte bi hizkuntzako Herri bakarra osatzen zuten nafarrek. Orain hizkuntza banako bi nazio diferente ari gara egiten. Batzuek Nafarroa Garaia euskalduntasuna ukatzen dute. Besteek haren espainolotasuna. Nazionalismo guztiak oinarritu ohi dira bestearen ukoan, baina hemen batzuek nola besteak beren buruak ari dira ukatzen. Nere ustez, espainolismoaren eta abertzaletasunaren elkarrenganako gorrotoa (beren buruenganako gorrotoa) gainditzuten duen beste ideologia baten premia gorria daukagu. Horretara, nafar guztiak elkargatu zituen Gamazadak erdutako balio diezaguke. Bestela bi eskizofrenia hauek zuzenean suizidio kolektibora garamatzate.

Xabier Zabaltza Perez-Nieves
Historialaria



Gazteendako Zokoa



XAKEAN

Udaberriko Txapelketako 5. jardunaldiko partida, 1993ko maiatzaren 22an jokatu. J.M. Mendi-zabal (2.350 ELO), txurikin, J.J. Mindegiaren (1.865 ELO) aurka.

1.e4,c5; 2.Zf3,Zc6; 3.d4,d4; 4.Zd4,Zf6; 5.Zc3,e5. Zalantzazko jokaldia, damaren peoia ahultzen baitu. 6.dZ-b5,d6; 7.Ag5,a6; 8.Za3,b5; 9.aZ-b1,Da5; 10.Zd2,Zd4; 11.Af6,f6; 12.Zb3,Dc7. Zaldia aldatu behar zuen. Orain peoi bat galduko du. Eta posizioa, nahiko hankaz gora. 13.Zd4,d4; 14.Dd4,Ae6; 15.Zd5,Ad5. Derri-gorrezkoa. Alfilen bikotea apurtuta geratu arren. Bestela, 15...Dc7; 16.Zf6 xa,Ed1; 17.Zd5,Gg8; 18.Db6 xa,Ec8; 19.De3. Oso larri jarriko lirateke beltzak. 16.Dd5,Gc8; 17.Ad3, Gg8; 18.g3,Gg5; 19.Db3,d5. Aurrerapen honekin, erregea babesik gabe utzi du. 20.0-0-0, d4; 21.hGe1,Gc5; 22.f4,Da5; 23.e5,f5; 24.e6,Ae7; 25.f7 xa,Ef8; 26.De6,Dc7; 27.Dh6 xa,Ef7; 28.Dh7 xa,Ee8; 29.Dg8 xa,Ed7; 30.Af5 xa,Gf5; 31.De6 xa, Ee8; 32.Df5,Dc4; 33.Gd4. Beltzek aski izan zuten. Makurtu ziren.

Bertsoak

Gaia: Zaldiak. Doinua: uso txuri polit bat. Baztango ikastolako 4. mailakoa.

Zaldiak hemen daude
guztiak jauzika
eta mutilak berriz
beraiei segika,
zaldiak izuturik
dabiltza korrika
mutil bat erori da
itzilipurdika

Azkenean zaldia
hanka apurtuta
lurrera erori da
zeharo minduta
medikua torri da
merkromina hartuta
gaian jarri dio
manta zabaldua

Joanes Lazkano Bikondoa

Jenero Xumekoak

Peligro Benta (II)

Egia saltzen duenak musu bat eman zidan, eta ezti zapore dut ahoan. Musu bat eman zidan konfiteroak eta txokolate zapore dut ahoan. Ezti goxoa bezain ezti da goxokia. Ez dakit nola aterako naizen korapilo honetatik, baina bietatik bat negarka.

JEREMIAS ERRO

Lagunak galtzen

JUANA M^a MARIN

13 urte ditugunean, gauza asko pentsatzen ditugu. Guzti horien artean beti edo ia beti badago bat asko kezkatzen gaituena: 8. maila bukatutakoan nora joan.

Hau pentsatzerakoan, ez dugu pentsatzen zein ikastetxe ote den hobia edo non ikasiko dugun hobeto, baizik eta ikastera joan behar dugun ikastetxean lagunekin egongo garen ala ez. 14 urterekin, gela berri batera joan eta jende berriarekin egoteak beldur handia ematen digu, eta askoz ere handiagoa gela horretan inor eza-gunik ez badago. Nik alde horretatik zorte handia izan dut, nere gela berean aspaldiko lagun ugari ditudalako, baina nere aintzinako gelako beste neska bat beste institutu batean dago eta ikasturte

hasi zenetik gure harremanak okertzen joan dira.

Nere ustez, gaur egun dagoen hezkuntza legea ez dago ondo antolatuta, lagunak egiten dituzulako eta denbora dezente beraiekin egon ondoren (nere kasuan zazpi urte), gero beste gela batera joan eta lagunak atzean uztea ez baitago batere ondo. Nere ustez erreforma lehenago egiten hasi beharko zuten, orain ni lagun maite bat galtzen hasi naitelako, eta hau ez zait batere gustatzen eta, ziuraski, nire egoera berberan jende ugari dago. Ikusten dugu nola lehen lagun txit maite zena urrutiratzen ari den eta ezin dugula ezer egin hori geldiarazteko.

Inori ez zaio gustatzen ezer ez galtzea, erlojua, kartera, dirua,

betaurrekoak eta are gutxiago ere lagunak.

Badakit, nolanahi ere, gela berrian lagun berriak eginen ditugula, baina ulertzen ez dudana zera da, lagun berri bat egiterakoan beste lagun bat galdutako behar izatea... nik nahi ditut lagun berriak egin eta baita ere lehendik nituenak kontserbatu, baina orain konturatzen naiz bi gauzak ez direla batera etortzen. Lagun berriak egiterakoan beraiek duten pentsamoldetara moldatu behar duzulako, eta kasu guztietan lehen zenituen uste eta pentsamenduak ez dira berberak.

Nere lagun honi gertatzen zaiona, nere ustez, hauxe izan da, eta orain berak nik eta beste lagun batzuk gutxiago izango bagina bezala ikusten gaitu.



KAZKARROAN

BOSTEKO TTIPIAK

Zenbaki bakoitzeko hitz bakar bat eta bera

1. Abiapuntura jo
2. Zakar
3. Herri nafarra
4. Lilia
5. Eztenak

1. Zakar, ez eder
2. Fruitu mota
3. Herri nafarra
4. Soldada
5. Eguraldiak

1. Udal nafarra
2. X. hilabetea
3. Urrun
4. Jitea, itxura
5. Behizainak



Bizkaia

Gehientzat gaurko mendia ezezaguna izanen da. Txikia izanik Iruñetik hurbil egoteak ematen dio halako garrantzia. Aranguren eta Elortzibarren arteko muga da. Esan bezala garrantzi txikikoa da eta horregatik, beharbada, izenik ere ez du. Mapaegileek, hala ere, izen bat paratu behar izan zuten haren gainean eta, burua gehiegi hautsi gabe, *Sierra de Tajonar* sortu zuten. Taxoarekoek, ordea, gaur egun *Montechiquito* (euskaldunak zirenean *Oiantxikia* deitu zioten) eta *Montegrando* ibiltzen dute. Elortzibarkoek, berriz, *Bizkaia* eta *El Cerro*. Elortzibar-koen usadioa begiratu Toponimia Taldeak *Cerro de Bizkaia* ofizializatu du zenbait planotako *Sierra de Tajonar* edo *Taxoareko Mendizerraren* ordez.

Erabaki honetan militarrek ditugu aintzindari. Nik dakidala izen hau, *La Vizcaya*, estraineko aldez agertzen da plano batean 1859. urtean argitaratzen den *Itinerario General Militar de España* liburuxkan.

Bizkaia hitza ez da jadanik euskaraz erabiltzen. Hori bai, toponimian, Euskal Herri osoan hedaturik azaltzen da. Ezagunena, dudarik gabe Bilbao hiriburua duen herrialdea da. Nafarroan, esate baterako, alderdi zabal bati esaten zaio *Bizkaia* (*La Bizkaia* hobeki esateko). Zangozerrian, Oibar eta Elo artean, Ezporogiko barrutian. Iruñerrian, gainera, bada beste *Bizkai* bat, Atondon hasi eta Itza-Eritzeraino doan mendia hain zuzen ere. Erronkarin ere ugari dira *Bizkai* izeneko mendiak eta esan liteke ibar horretan oso berandu arte erabili ohi zutela hitz hau.

Esanahiaz den bezainbatean, Erronkariko datuei begira batez ere, gaztelarazko *Sierraren* parekoa dela esan genezake. Dena den, eta hitzak alde batera utziz, *bizkai* bat zer den, edo zer izan litekeen, ikusteko hoberena aipatutako bi mendi horiek ikustera joatea da. Atondoko eta Elortzibarko *bizkaiek* ezaugarri amankomunak dituzte. Nabarmena mendi luzeak eta gorabehera gutxiak direla. Horra hor, beraz, zer izan daitekeen *bizkai* bat. Egia esan *bizkar*-aren esanahitik, eta itxuratik, oso hurbil dago, konparazio batera, Iratin *Orbizayaco bizcarra* dugu eta Orreagan mendi bati *Garabizkar* eta *Garabizkai* deitu izan zaio.

Esfortzua egin dezagun Bizkaia erabiltzeko. Bertakoek eskertuko ligukete eta, bidenabar, izen artifizala baztertuko genuke.

MIKEL BELASKO

Bizi Bizian

Heldu den astean onartuko da —arazorik izan ezean— Idiazabal jatorri izendapena Nafarroan egiten diren gaztendako, lau urteko negoziaketan ondorioz. Erronkariz landako gaztak, horrela, maila berean ariko dira Hego Eus-

kal Herriko gainontzeko hiru lurraldeetakoekin, 1990ean Urbasa izeneko izendapena deuseztatu ondoren. Azken arazoak gainditzeko bidean, uztailearen 25a baino lehen izango da, hain segur, iragarpen ofiziala.

Kontuak kontu, Idiazabal

ALBERTO BARANDIARAN / IRUNEA

Idiazabal jatorri izendapena 1986ko abenduan onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araban egiten den gaztarendako bakarrik. Horri gehitu zitzaion Nafarroako Gobernuak 1987ko urrian onartu zuen Urbasa jatorri izendapena. Bertan sartzen ziren Erronkariz landa —ordurako bere jatorri izendapena zuena— egiten ziren latxa-ardi gazta oro, denak ezaguturri beretsuekin.

Urte haietan bi izendapenak banandurik aritu ziren, baina behala aztertu zen biak batu beharra. Izan ere, gaztek, berez, ez dute desberdintasunik: ardi berbera —latxa—, larre eta inguru berberak, eta gazta egiteko prozesu berdinak. Gainera, arrazoi ekonomikoek ere elkartzeko bideari heldzea gomendatzen zuten.

Jatorri izendapenak kalitateko produktua defenditzen dute, eta barne komertzioa bultzatzeko ezinbesteko iritzi zioten izen bakar bat izateari. Egindako zenbait merkatu ikerketak ziotenez, Europar askoz estimatuagoak dira azal biguneko gaztak, eta behi gaztak nahiago dituzte. Kontuan hartzeko beste arrazoa prezioa zen, gazta hauek ezin baitzieten aurre egin Europar tradizio handiko diren behi gaztei.

Hori dela eta, bi izendapenak batzeko lehendabiko harremanak 1989an hasi ziren, eta uztailaren, Arkauten (Araba) egindako bilera batean, Nafarroako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, EHNE sindikatuak eta INDO Espainiako Jatorri Izendapenarako Institutuak bi izendapenak batzea erabaki zuten. Kontuan harturik Idiazabal izenak hartutako ospe eta indarra, izen horri eustea onartu zen, baina orduantxe hasi ziren arazoak.

Autonomi elkarteek, berez, eskumenak badituzte arlo honetan, eta gai dira izendapenak erabakitzeko. Hala ere, bi edo au-



Gaztagileen etorkizunerako funtsezko tresna da jatorrizko izendapena.

tonomi elkarte gehiago bilduz gero bere baitan, INDOk, izendapenak arautzen duen legearen arabera, badauka zenbait eskumen. Horrela, 1989an bertan jatorri izendapenaren arautegia erredakzio lanetan hasi ziren, beti INDOren begiradapean, eta zenbait zuzenketa tartean, prozesuak aurrera egin zuen. Aurretik erabakitakoari kasu eginez, Nafarroako Gobernuak 1990eko



Izenez, ez izatez

A.B. / IRUNEA

■ Urbasa jatorri izendapena deuseztatu zenetik Nafarroako gaztak Idiazabal izendapenaren barruan izan dira izenez, baina ez izatez. Horrek ez du berebiziko arazorik sortu, baina egoera nahiko bitxia gauzatu da bi autonomi elkarteetako gaztagileen artean. Nafarroako ekoizleek, inolako kontrolik gabe, Idiazabal izeneko gaztak saltzen aritu dira denbora horretan, eta arazorik ez bada sortu «alde guztietako borondate onari esker» izan dela dio Sanz de Galdeanok Nafarroako Nekazaritza zuzendariak. «Izan dira egoera bereziak, hala nola Olaztin egindako gazta batek Idiazabal jatorri izendapena izatea, edota Arabako gaztagileek

Nafarroako esnea erostea. Hor inspektoren batek eskua sartzen baldin badu, arazo latza izango litzateke».

Egoera bitxi honek «seriotasun falta» erakusten duela dio Petrirenak. «Artzain batek ez dakit nongo esnea ekartzen badu eta gero Idiazabalen etiketa paratzen badiu, zeinek sartuko du hor eskua? Legez ez dago nondik heldurik. Produktua ari gara saltzen, baina ez dakigu nongo eta nolako produktua den, eta hori izendapena bera izorratzen ari da».

Halaber, komertzioaren aldeko egoerak eraginik baduela azaldu du Sanz de Galdeanok. «Oraingo gaztagile guztiek Idiazabal izena erabiltzen dute baina edozein arrazoiengatik hau hausten bada, hau da, azke-

urtarrilaren 25ean Urbasa jatorri izendapena deuseztatu zuen, baina Eusko Jaurlaritzak ez zuen gauza bera egin. Eskumenak Estatuko erakunde baten menpean uztea «utzikeria politikoa» izan zitekeelako argudioz, Jose Manuel Goikoetxea Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza sailburuak galga jarri zion proiektuari eta etena sortu zen ondoren. Erabakian, Errioxako Ardoa jatorri

nean bategitearenak aurrera egin ez badu, gaztagileak inolako babesik gabe geldituko lirateke».

Aipatu arazoez aparte badago izendapen bateratuari premia gehitzen dion beste arazorik. Uztailearen 24etik aurrera Europako Komunitatearen (EK) 2081/92 izeneko arautegia jarriko da indarrean, eta horren arabera, hortik aurrera osatutako jatorri izendapenak EK-ko lurraldeen oniritzia beharko dute izan. «Honek franko zailtzen du prozesu osoa» dio Sanz de Galdeanok, «edozein lurraldek ezetza eman baitiezazioke gure bategiteari. Frantziak, adibidez, baditu bere lurraldean ezaugarri beretsuak dituzten gaztak, eta ezetza eman lezake. Orain, aldiz, ez dugu horrelako arazorik».



Jose Manuel Goikoetxea.

izendapenarekin izandako arazoen zeresan bazutela zioten Nafarroako Gobernuako Nekazaritza Saileko iturriek, eta horrela baieztatu zuten EHNE sindikatuan.

Kontuak kontu, gaur arte, aurrerapausorik gabe, EHNE eta Nafarroako Gobernuaren horretarako «arrazoi nahikorik» ez dela izan esaten badute ere. «Guri ez zaigu inporta zeinek jartzen dion txapela» azaldu du Mikel Petriren EHNE-Nafarroa sindikatuen buruak, «baizik eta arautegi zehatz eta zuzena nola egin. Hori lortuz gero, izendapena aurrera aterako da». Arazoa, izan ere, nabarduretan datza. INDOk izendapenaren presidentearen izena berretsi beharko luke, eta auziak erabakitzeko orduan azken erakundea litzateke. Gutxiegi, gaia lau urtez luzatzeko. «Arazoa Eusko Jaurlaritzarena izan da» dio Joaquín Sanz de Galdeano Nafarroako Nekazaritza zuzendariak, «orain arte ez baitute akordioarik lortu Espainiako Nekazaritza Ministerioarekin. Egindako zuzenkete oso gutxi aldatu dute, nere ustetan, hasierako planteamenduak, eta luze gabe arautegia onartuko delakoan nago».

Bi izendapenen barruan zeuden gaztek ez dute desberdintasunik eta arrazoi ekonomikoek ere elkartzeko bideari heldzea gomendatzen zuten.

Zenbait eskumen Espainiako INDO erakundearen menpe uztea «utzikeria politikoa» zela argudiatuta Eusko Jaurlaritzak galga jarri zion proiektuari.

Jose Ulibarrena

etnografoa

«Ez dugu modernitasunaren beharrik»

PATXI ULAIAR / ARTETA

Gizon honek Euskal Herriari —Euskaria deitzen dio berak— eta euskal izakerari dion atxikimenduak ez dauka parerik. Artetako (Ollolabar) bere museoan mota guztietako lanabesak, etxeko tresnak eta gauza niniño eta xeheak dauzka gordeta, urrea balira bezala, eta euskaldunon sakoneko gogo eta nahiaz hitz egiten hasiz gero nekez gelditzen da. Harritu egiten da jendearen zabarkeriaz kulturari onespina eman eta ezagutzerakoan, eta gogor kritikatzeko dituzten garbi, bere ustetan inolako meriturik ez daukaten artelan handiak. Pasa den asteko aurkezpenean 130etik gora pertsona egon ziren Artetan, eta —nola ez!— «bertoko gauzez» egindako benduda eskaini zien denei: artzain-gilborra, Urbasako gazta eta Murtxanteko ardoa. Juan Cruz Alli eta Javier Markotegi ere bertan egon ziren, baina laister alde egin behar izan zutelako dio, «mitinen bat baitzuten hor nonbait».

EGUNKARIA.— Zure hirugarren liburua den hau aurrekoak baino trinkoagoa eta filosofikoagoa da. Urte askotako lana da?

JOSE ULIBARRENA.— Liburua iaz egin nuen, baina bost urtetik honako gogoetak dira. Nik bertan azaldu nahi izan dut zer den maisu lana, zergatik deitzen zaion lan bati horrela. Nere gogoetaz gain, badaude bertoko lana —basalana, nik izendatu dudana bezala— jasotzen duten argazki batzuk, beste artelanarekin alderatzeko. Arte honek ez dauka zerikusirik beste arteekin —grekoarekin, erromatararekin—. Liburu honetan erakutsi egiten dut, hor ez daude teoriak.

EGUNKARIA.— Eta zeintzu dira arte horren ezaugarriak?

ULIBARRENA.— Gure hizkuntza, euskara, indoeuroparren aurre-

koa den bezala, hemen, museo honetan, badaude euskal marra, erritmo eta neurrien adibide ugari. Ongi azaldu dezadan. Norbait Peruko tresna bat, edo Egipton egindako beste bat, ikusten baldin badu, segituan antzematen du nongoa den, ez du azalpenaren beharrik. Gaur egun, Euskal Herrian, badago oraindik gure plastikaren ondare handia, eta ez dugu kanpoko modernitasunaren beharrik. Hemen baditugu egutegirik ez duten gauza asko, egin zutenetik onak baitira.

EGUNKARIA.— Zer motatako tresnak aztertu dituzu horretarako?

ULIBARRENA.— Hemengo museoan badaude lanabes franko, eta apaingarriak edo lan egiteko baliagarriak izateaz gain, badute beren baitan, nabarmen eta in-

dartsu, izakera plastikoa, estiloa, marra, neurria... dena.

EGUNKARIA.— Eta oso desberdina da beste kulturetako artearekin alderatuta?

ULIBARRENA.— Horixe baietz! Hizkuntza desberdina den bezalaxe.

EGUNKARIA.— Liburuan esaten duzu artelan batek bertoko izake-

Artelana izateaz gain, tresnak, erremintak diren eskultura hauetan dago euskal etnia eta izakera. Jende honek ez du txorakeriarik egiten».

rarik izan ezean, beste pentsamolde eta eraginak jasoz gero, ez dela artelan hutsa izango. Horren arabera, zurendako, benetako artista kanpoko eraginik jasotzen ez duena izango litzateke?

ULIBARRENA.— Izan dira, eta badaude, lan egin eta bizi diren bezala, artista diren pertsonak. Berrezko izakera dauka horien lanak, beren bizitzaren ispilua delako. Beste batzuek artelana egiten dute, baina izakera hori gabe. Ba, hor konpon! Nere ardura da gure artelanari bere izakera nabarmentzea, garen modua azaltzeko. Arte abstraktuarekin gertatzen ari denarekin esanguratsua da. Abstraktua dena, berrez, ez da existitzen, eta, beraz, ikusten den zerbait, ez da abstraktua, neurriak, koloreak, pisua duelako. Haiek esaten dute arte-

lan horiek izpiritua, barruko go-go direla, eta nik esaten diet: «hara non inoizko mirakulurik handiena topatu duzun: izpiritua, esentzia ikuskatzea».

EGUNKARIA.— Eta jatorrizko artelan horretatik zer gelditzen da?


ULIBARRENA.— Jendeak uste duen baino askoz ere gehiago. Sutondoarendako dauden erretzeko tresnak izugarri politak dira, eta formak abstraktatuak dira, ez abstraktuak. Zeharo desberdina da gure artistek egun egiten dutenarekin, kasu. Zuk badakizu zer den orratza, baina ikusten baduzu «Haize Orrazia» izeneko eskultura ez duzu ezer ulertzen. Gainera, ez dauka inolako aberastasunik: lantegi batean egindako formak dira, besterik ez. Horrek ez dauka maisutasunik, oso errespetagarria bada ere. Nik galdetu egiten dut non dagoen maisulan hori.

EGUNKARIA.— Euskara eta plastika alderatzen dituzu, eta egoera antzekoa dutela diozu. Euskal izakeraren beste arloetan ere gertatzen da?

ULIBARRENA.— Horixe baietz! Artelan izateaz gain tresnak diren eskultura hauetan dago etnia eta izakera. Jende honek ez du txorakeriarik egiten! Egiten du maisu lana, izugarritzko profesionaltasunarekin. Artaizko elizan, kasu, badaude kalitate handiko eskulturak, eta jendea ez da konturatzen. Baserrietan dauden lanak ere kalitate handikoak dira, eta hori da benetan euskal izakerekin bat datorrena.

EGUNKARIA.— Beste libururen bat ere prestatzen ari zara?

ULIBARRENA.— Bai, aste honetan bertan aurkeztuko dut «Irunberriko maisu eskultura». Bertan badago X. mende inguruko eskultura baten azterketa. Intxaur zurezko eskultura erraldoia dugu hor, aparta. Horiek dira maisu lanaren adibide garbiak.



BERNABE MALLO

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

